

## **SUGE ERRONKA JOLEA**

*Kortezubiko Matías Aranazek kontatuta 1923an*

Suge batek irten egin zuen bere kobazulotik gizakion indarra frogatzera.

Lehenengo azeria aurkitu zuen bidean eta esan zion honi ia non dauden gizon indartsuak.

Azeriak, olagizonak beharrea zebiltzan etxe bat erakutsi zion eta hantxe zeudela gizaki indartsuenak esan ere.

Sugea etxe hartara joan zen eta esan zion gizonari frogatu behar zutela nor zen indartsuagoa, gizakia ala bera.

Apur baten itxaroteko esan zion gizakiak; baina berak heldu behar ziola lehenengoz; geldi egoteko berak, nondik gure, heldu artean.

Gizakiak jarri zituen tenaza handia batzuk olako suten berotuten.

Tenaza beroekin heldu zion sugeari saihetsetatik. Sugea ikaratu egi zen, bakean uzteko esaten zion, bera baino gehiago zela-eta.

Gizakiak esan zion sugeari: hatz birekin heldu dizudan moduan hamarrekin egingo banizu zati osorik ez nizuke utziko.

Gizakiak orduan ikaratu zituen munduko pizti txar guztiak.

Ordutik ona gizakien beldur dira patari txar guztiak.

**Joxe Miel Barandiaran**

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973